

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020 martxoaren 27an hartutako erabakiaren laburpena: Vitoria-Gasteizko udalerrian ikus-entzunezkoen ekoizpena eta gidoigintza sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren berriazko deialdia. 2020. urtea

BDNS(Identif.): 509934

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index> eta Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean <http://www.vitoria-gasteiz.org> kontsulta daitezke.

Lehen. Onuradunak

Pertsona fisiko edo juridiko pribatu independenteak, edozein delarik ere haien forma juridikoa, baldin eta honako baldintzak betetzen dituen merkataritza-jarduera burutzen badute:

- a. Helbide soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea.
- b. Zinema, telebista eta plataforma digitaleko proiektuak garatzeko laguntzei eta film laburrak ekoizteko laguntzei dagokienez, pertsona fisiko nahiz juridiko pribatu independenteak izan daitezke onuradun horien ekonomi jardueren gaineko zergaren epigrafea laguntza eskatzen duten jarduerari dagokiona bada.
- c. Zinema-gidoiak idazteko laguntzei dagokienez, ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafean jarduera profesional gisa gidoien eskritura egiten duten pertsona fisikoak.
- d. Aldundiarekiko betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak beteta izatea, salbu eta ordaintzetik salbuetsita daudela egiaztatzen badute. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebeharrak hori (dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean).
- e. Administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukerarik apartatua ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenaren arabera sexu arrazoiengatiko diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.
- f. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita elkarte edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkarteak, lanbide elkargoak eta abar).
- g. Eskatzaile bakoitzak hainbat proiektu aurkezteko aukera gorabehera (4 gehienez), pertsona edo enpresa onuradun bakoitzeko eta modalitate bakoitzeko proiektu bakarrerako eman ahal izango da laguntza. Bateriaezinak dira "zine eta telebistako proiektuak burutzeko laguntzak" eta "Zine gidoiak idazteko laguntzak" modalitateak.
- h. Udalaren aurreko deialdietan dirulaguntza jaso zuten proiektuak ezingo dira aurkeztu onuradun gertatu ziren laguntza modalitate berera, salbu eta onuradunak berriaz laguntzari uko egin bazion eta horri zegokion itzulketa egin badu.

Bigarrena. Xedea

Ikus-entzunezko proiektuak (fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak) garatu eta ekoizteko eta film luzeen gidoiak idazteko laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea, norgehiagoka baliatuko da horretarako.

Laguntza motak:

1. Zinema, telebista eta plataforma digitaletarako proiektuak garatzeko laguntzak, deialdiaren oinarrietako I. kapituluaren adierazten denaren ildotik.
2. Film laburrak ekoizteko laguntzak, oinarri hauetako II. kapituluaren adierazten denaren ildotik.
3. Zinema-gidoiak idazteko laguntzak (deialdiaren oinarrietako III. kapitulua).

Hirugarrena. Oinarriak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia), eta 2020ko martxoaren 27an, berriz, laguntza horien "Vitoria-Gasteizko udalerrian ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzeko eta gidoiak idazteko laguntza ekonomikoak emateko deialdia" ildo. 2020. urtea.

Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 100.000,00 eurokoa da, 2020ko udal aurrekontuko 0821.4331.471.02 Sorkuntzarekin eta ikus-entzunezkoekin lotutako industrientzako laguntzak partidaren kontura.

50.000,00 euro zinema, telebista eta plataforma digitaletako proiektuak garatzeko.

40.000,00 euro film laburrak ekoizteko.

10.000,00 euro film luzeetarako gidoiak idazteko.

Pertsona, enpresa eta urte bakoitzeko laguntza-dosier bakarra tramitatuko da, eta hau izango delarik gehieneko diru-laguntza:

10.000,00 euro, zinema- eta telebista-proiektuak garatzeko.

10.000,00 euro film luzeak ekoizteko.

5.000,00 euro film luzeen gidoiak ekoizteko.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun balioduneko epea, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 1a

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI